

## **2009KO LANPOLTSAK**

# **ADMINISTRARI LAGUNTZAILEAK**

**A EREDUA**

**2009/12/18**  
**10:00**

**1 ESPAINIAKO KONSTITUZIOAK:**

- 1a) Norberaren intimitaterako eskubidea bermatzen du, baina ez posta-komunikazioen sekretuarena.
- 1b) Norberaren intimitaterako eskubidea bermatzen du, baina ez bakoitzaren irudia.
- 1c) Langileen estatutua arautzen du.
- 1d) Guztiak zuzenak dira.

**2 ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN ARABERA:**

- 2a) Ez da aitortzen isilpeko elkarteak eratzeko eskubiderik.
- 2b) Bilerak baketsua egiteko eskubidea aitortzen da.
- 2c) Toki publikoetan egiten diren bilerak agintariak onartuko edo debekatuko ditu, bere irizpidearen arabera.
- 2d) a) eta b) zuzenak dira.

**3 ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN ARABERA:**

- 3a) Hezkuntza askatasuna aitortzen da.
- 3b) Irakasleek bakarrik parte hartuko dute diru publikoarekin ordaindutako ikastetxeen kontrolean.
- 3c) Oinarrizko hezkuntza doakoa da adingabekoentzat.
- 3d) Guztiak okerrak dira.

**4 KONSTITUZIOAREN ARABERA, GUZTION ESKUBIDEA DA GARAPENERAKO EGOKI DEN INGURUMENA IZATEA, ETA GAINERA...**

- 4a) Botere publikoek ingurumen osasungarri baten alde lan egingo dute.
- 4b) Artikulu honetan xedatutakoa urratzen dutenentzat, betiere administrazio-zehapenak ezarriko dira.
- 4c) Guztion egin beharra da ingurumena zaintzea.
- 4d) Guztiak zuzenak dira.

**5 KONSTITUZIOAREN ARABERA, BOTERE PUBLIKOEN...**

- 5a) Gazteriaren parte-hartzea bultzatuko dute.
- 5b) Aurreneurri- eta gizarteratze-politika egingo dute elbarri fisikoentzat.
- 5c) Gutxieneko kaudimena bermatuko diete herritarrei zahartzaroan.
- 5d) Guztiak zuzenak dira.

**6 KONSTITUZIOAREN ARABERA, AUTONOMIA-ESTATUTUEI BURUZ**

- 6a) Estatuak aitortuko ditu, baina ez babestu.
- 6b) Honako hauek jaso beharko dituzte: lurraldearen mugak eta Erkidegoaren oraingo izena.
- 6c) Estatutuen eraldaketa gobernuburu edo lehendakariak onartu beharko du.
- 6d) Estatuaren eskumen eskusiboak jaso beharko dituzte.

**7 EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA-ESTATUTUAREN ARABERA, EUSKAL HERRIAK AUTONOMIA ERKIDEGO GISA ERATZEN DU BERE BURUA:**

- 7a) Bere historiaren adierazgarri.
- 7b) Bere kulturaren adierazgarri.
- 7c) Bere naziotasunaren adierazgarri.
- 7d) Bere nortasun historikoaren adierazgarri.

**8 HONAKO NORTASUN-EZAUGARRI HAUETATIK, ZEIN EZ DAGO ZEHAZTUTA EUSKAL HERRIAREN AUTONOMIA-ESTATUTUAN?**

- 8a) Euskal Herriko ikurrina.
- 8b) Autonomia Erkidego osorako erakundearen egoitza.
- 8c) Euskara, hizkuntza ofizial moduan.
- 8d) Autonomia Erkidegoaren izena.

**9 HERRI-DEFENDATZAILEAREN ANTZEKO EUSKAL ERAKUNDEARI, NOLA DERITZO?**

- 9a) Arartekoa.
- 9b) Lehendakaria.
- 9c) Euskal Komisarioa.
- 9d) Justizia Nagusia.

**10 EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEETAN, ZEIN DA HAUTES-BARRUTIA?**

- 10a) Koadrila.
- 10b) Autonomia Erkidegoa.
- 10c) Euskal lurraldea.
- 10d) Lurralde Historikoa.

**11 AUTONOMIA-ESTATUTUAK 37. ARTIKULUAN AITORTZEN DU LURRALDE HISTORIKOEK HONELAKO ESKUMENAK DITUZTELA:**

- 11a) Esklusiboak.
- 11b) Partekatuak.
- 11c) Pilatuak.
- 11d) Inklusiboak.

**12 LURRALDE HISTORIKOETAKO BATZAR NAGUSIAK DIRA:**

- 12a) Ordezkaritzako eta kontroleko organo gorena.
- 12b) Ordezkaritzako eta parte-hartzeko organo gorena.
- 12c) Gobernuako eta parte-hartzeko organo gorena.
- 12d) Ordezkaritzako eta gobernuako organo gorena.

**13 FORU-ALDUNDIAK LURRALDE HISTORIKOETAN:**

- 13a) Lurralde historikoaren zuzendaritzaren eta bultzadaren ardura hartzen du.
- 13b) Gobernuaren eta administrazioaren ardura hartzen du.
- 13c) Autogobernu-ahalaren egikaritzaren ardura hartzen du.
- 13d) Lurralde historikoaren autonomiaren adierazpena da.

**14 ARAUBIDE OROKORREKO IRAKASKUNTZAK EMATEN DITU:**

- 14a) Maisu-maistren kidegoak.
- 14b) Lanbide-irakaskuntzako irakasleen kidegoak.
- 14c) Prestakuntza teknikoko irakasleen kidegoak.
- 14d) Lehen irakaskuntzako irakasleen kidegoak.

**15 MAISU-MAISTREN KIDEGOAK BERE EGINKIZUNAK BETETZEN DITU:**

- 15a) Haur- eta lehen hezkuntzan.
- 15b) Lehen eta bigarren hezkuntzan.
- 15c) Nahitaezko lehen eta hastapeneko hezkuntzan.
- 15d) Nahitaezko haur- eta bigarren hezkuntzan.

**16 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LANBIDE-HEZIKETAKO IRAKASLE TEKNIKOEN KIDEGOAK BERE EGINKIZUNAK BETETZEN DITU:**

- 16a) Bigarren lanbide-hezkuntzan.
- 16b) Lanbide-heziketa teknikoan.
- 16c) Lanbide-heziketa industrialean.
- 16d) Berriazko lanbide-heziketan.

**17 IKASTETXE PUBLIKOETAKO LAGUN BAKARREKO AGINTE-ORGANOAK DIRA:**

- 17a) Zuzendaria, idazkaria eta klaustroa.
- 17b) Zuzendaria, ikasketaburua, idazkaria eta ikuskatzailea.
- 17c) Zuzendaria, ikasketaburua, idazkaria eta, kasuan kasu, administratzailea.
- 17d) Zuzendaria, ikasketaburua eta dekanoa.

**18 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEKO PRINTZIO OROKOR BAT DA:**

- 18a) Tratu berdina.
- 18b) Ekintza positiboa.
- 18c) Aukera-berdintasuna.
- 18d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

**19 4/2005 LEGEKO ADMINISTRAZIOAREN ARAUDIAN ETA JARDUERAN BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRIEN ARTEAN DAGO:**

- 19a) Hizkera sexista erabiltzea, zuzenean nahiz beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan.
- 19b) Hizkera ez sexista erabiltzea, ez zuzenean, ez beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan.
- 19c) Hizkera ez sexista erabiltzea, bakarrik zuzenean sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan.
- 19d) Hizkera zuzena erabiltzea, zuzenean nahiz beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan.

**20 ADMINISTRAZIO-PROZEDURAN, ORDEZKARITZA:**

- 20a) Ez da inoiz emantzat hartzen.
- 20b) Prozeduraren egintza guzietarako emantzat hartzen da.
- 20c) Alegazioak egiteko bakarrik hartzen da emantzat.
- 20d) Izapidezko egintzetarako bakarrik hartzen da emantzat.

**21 30/92 LEGEAK INTERESDUNTZAT HARTZEN DU:**

- 21a) Bakar bakarrik, prozedurari hasiera ematen dion pertsona, onura bat jasotzeko asmoz.
- 21b) Bakar bakarrik, prozeduraren arabera kaltetua gerta daitekeen pertsona.
- 21c) Bai prozedurari hasiera ematen dion pertsona onura bat jasotzeko asmoz, eta baita kaltetua gerta daiteken pertsona ere.
- 21d) Prozeduraren ondorioz onuradun izan daitezkeenak bakarrik.

**22 IDAZKI BATEK SINATZAILE ASKO BADITU:**

- 22a) Prozedurako jarduera guztiak sinatzaile guztiekin egingo dira.
- 22b) Jarduera guztiak prozedura barruan izendatu denarekin egingo dira, eta honen ezean, lehen sinatzailearekin.
- 22c) Jarduera guztiak prozedura barruan azken sinatu duenarekin egingo dira.
- 22d) Jarduera guztiak prozedura barruan adin nagusia duen sinatzailearekin egingo dira.

**23 ADMINISTRAZIO-PROZEDURAN, ORDEZKARIAK:**

- 23a) Askatasun osoz egin diezaieke uko eskubideei prozeduran.
- 23b) Eskubideei uko egiteko, dokumentalki egiaztatu behar du bere ordezkari izaera.
- 23c) Ezin izango dio inoiz uko egin.
- 23d) Uko egin diezaieke, bakar bakarrik, izaera patrimoniala duten eskubideei.

**24 HERRITARREK:**

- 24a) Dokumentuak aurkezteko obligazioa dute, nahiz eta dokumentu horiek jadanik Administrazioaren esku egon.
- 24b) Ez dute dokumentuak aurkezteko obligaziorik, hauek Administrazioaren esku baldin badaude.
- 24c) Derrigorrez beren pasaporteak aurkeztu behar dute, edozein eskaera egiterakoan.
- 24d) Derrigorrez beren Titulazio akademikoa aurkeztu behar dute, edozein eskaera egiterakoan.

**25 HERRITARRAK:**

- 25a) Ez du eskubiderik berak aurkeztutako dokumentuen kopia eskatzeko.
- 25b) Aurkezten dituen dokumentuen kopia zigilatua jasotzeko eskubidea du.
- 25c) Aurkezten dituen ziurtagirien kopia bakarrik eskura dezake.
- 25d) Ez du eskubiderik aurkezten dituen ziurtagirien kopia eskuratzeko.

**26 DOKUMENTU ADMINISTRATIBOETAN SARTZEKO ESKUBIDEA:**

- 26a) Debekatu daiteke zenbait kasutan.
- 26b) Ezin da debekatu inoiz.
- 26c) Zenbait Udalerritan debekatu daiteke.
- 26d) Data zehatzetan debekatu daiteke.

**27 ERREGISTROAN EGITEN DIREN IDAZPENAK IDATZIKO DIRA:**

- 27a) Idatzi bakoitzaren garrantziak exijitzen duen ordena jarraituz.
- 27b) Idatzi bakoitzaren sarrerak edo irteerak exijitzen duen ordena jarraituz.
- 27c) Idatzi bakoitzak okupatzen duen lekuak exijitzen duen ordena jarraituz.
- 27d) Inongo ordenarik errespetatu gabe.

**28 HERRITAR BATEK ADMINISTRAZIO-ZENTRO EDO -UNITATE BATEAN ESKABIDE BAT AURKEZTU BEHAR BADU, ZENTRO EDO UNITATE HORI**

- 28a) Ez da eskaeran azaldu behar .
- 28b) Eskaeran azaldu behar da.
- 28c) Azal daiteke eskaeran, baina ez da derrigorrezkoa.
- 28d) Zenbait kasutan bakarrik azaldu behar da.

**29 HERRI-ADMINISTRAZIO BAKOITZAK**

- 29a) Ezin du ezarri zein egun eta ordutan egongo diren irekita bere erregistroak.
- 29b) Ezar dezake zein egun eta ordutan egongo diren irekita bere erregistroak.
- 29c) Ezar dezake zein egunetan egongo diren irekita bere erregistroak, baina ez zein ordutan.
- 29d) Ezar dezake zein ordutan egongo diren irekita bere erregistroak, baina ez zein egunetan.

**30 INTERESDUNAK:**

- 30a) Ezin du eskatu edozein froga.
- 30b) Bakarrik eska dezake lekukoen froga eta froga periziala.
- 30c) Ezin du inoiz eskatu lekukoen froga eta froga periziala.
- 30d) Edozein motatako froga eska dezake.

**31 PROZEDURAK ERABAKITZEKO EPEA:**

- 31a) 2 hilabetekoa da, prozedura eraentzen duten arauak ez dutenean beste epe bat aurreikusten.
- 31b) Beti 3 hilabetekoa da.
- 31c) Beti hilabetekoa da.
- 31d) 3 hilabetekoa da, prozedura eraentzen duten arauak ez dutenean beste epe bat aurreikusten

**32 PROZEDURA IRAUNGI BADA, BAINA EKINTZAK IRAUNGI EZ BADIRA:**

- 32a) Administrazio-prozedura berri bati hasiera emateko eska daiteke.
- 32b) Iraungitako prozedurak jarrai dezake.
- 32c) Ezin da prozedura berririk ireki.
- 32d) Administrazio-prozedura berri bat ireki daiteke.

**33 INFORMAZIO PUBLIKOAN EZ AURKEZTEAK:**

- 33a) Behin betiko ebazpenaren aurkako errekursoak jartzea eragotziko die interesdunei.
- 33b) Ez die eragotziko interesdunei behin betiko ebazpenaren aurkako errekursoak jartzea.
- 33c) Behin betiko ebazpenaren aurkako errekursoak jartzera behartuko ditu interesdunak.
- 33d) Aurreko erantzunetan ez dago zuzenik.

**34 ESPEDIENTEAK METATZEA HORIEI BURUZKO ERABAKIA ADMINISTRAZIO-PROZEDURA BATERATU BATEAN HARTZEKO:**

- 34a) Derrigorrezkoa da organo eskudunarentzat.
- 34b) Nahibadakoa eta diskrezionala izango da.
- 34c) Ez dago aurreikusirik legerian.
- 34d) Ez da exijitzen inongo loturarik akumulatzen diren espedienteen artean.

**35 ESKUORDETZAZ ONARTZEN DIREN EBAZPEN ADMINISTRATIBOAK**

- 35a) Espresuki adieraziko dute egoera hori, eta organo eskuordezleak eman dituela kontsideratuko da.
- 35b) Espresuki adieraziko dute egoera hori, eta eskuordetza jaso duen organoak eman dituela kontsideratuko da.
- 35c) Eskuordetza jaso duen organoak eman dituela kontsideratuko da.
- 35d) Ezin izango dira bide administratiboan aurkatu.



**36 ESKUDUNTZEN ESKUORDETZA**

- 36a) Errebokaezina da.
- 36b) Eman duen organoak edozein unetan erreboka dezake.
- 36c) Eman duen organoaren hierarkiko nagusiak edozein unetan erreboka dezake.
- 36d) Errebokaezina da, salbu eta eskuordetza jaso duen organoak aukera hori aintzat hartzen duen txosten bat egiten badu.

**37 JAKINARAZPENA INTERESDUNAREN BIZILEKUAN EGITEN DENEAN, HAU BERTAN EZ BADAGO**

- 37a) Inguruabarra espedientean jasota utziko da eta izapidea egintzat hartuko da.
- 37b) Bizilekuan dagoen beste pertsona batek EZIN izango du ardura hartu, nahiz eta sendikoa izan.
- 37c) Bizilekuan dagoen beste pertsona batek EZIN izango du ardurarik hartu, sendikoa EZ bada.
- 37d) Bizilekuan dagoen beste edozein pertsona arduratu ahal izango da, bere nortasuna jasota utziz..

**38 ARGITALPENAK**

- 38a) EZIN du inoiz jakinarazpena ordeztu.
- 38b) Jakinarazpena ordezten duenean, EZ du inoiz haren ondorio berdinik izango.
- 38c) Zenbait kasutan, jakinarazpena ordezten duenean, haren ondorio berdinak izaten ditu.
- 38d) Orokorrean, jakinarazpena ordeztu dezake, ondorio berak izanez.

**39 PROZEDURAREN IRAUNGITZEA, INTERESDUNARI INPUTATU AHAL ZAIZKION KAUSENGATIK:**

- 39a) Automatikoki ematen da.
- 39b) Aldarrikapen espresu bat exijitzen du iraungitzea deklaratu.
- 39c) Ezin izango da eman zenbait administrazio-prozeduratan.
- 39d) Batzuetan automatikoki ematen da, inongo deklaraziorik gabe.

**40 ADMINISTRAZIO-PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ARAUTZERA KOAN EZARTZEN DA TXOSTENAK NOLAKOAK IZANGO DIREN, BERARIAZKO XEDAPENEN BATEAN AURKAKORIK ESATEN EZ BADA. NOLAKOAK IZANGO DIRA TXOSTENAK?**

- 40a) Borondatezkoak eta behartze-indarrik gabekoak.
- 40b) Derrigorrezkoak eta behartze-indarrik gabekoak.
- 40c) Borondatezkoak, baina behartze-indarrekoak.
- 40d) Derrigorrezkoak eta behartze-indarrekoak.

**41 AKATS MATERIALEN ZUZENKETA**

- 41a) Errebokazio-modalitate bat da.
- 41b) Edozein unetan egin daiteke, ofizioz edo interesdunaren eskariz.
- 41c) Ezin da ofizioz egin.
- 41d) Egintza deuseztagarria denean bakarrik egin daiteke.

**42 HERRI ADMINISTRAZIOEN ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN LEGEAREN 105. ARTIKULUAK DIOENAREN ARABERA ERREBOKA DAITEZKE**

- 42a) Obra-lizentziak.
- 42b) Administrazio-zehapenak eta administrazio-baimenak.
- 42c) Trafiko-isunak.
- 42d) Ez bata eta ez besteak.

**43 EZIN DA ADMINISTRAZIO-ERREKURTSORIK JARRI**

- 43a) Izaera orokorra duten administrazio-xedapenen aurka.
- 43b) Behin-betiko egintzen aurka.
- 43c) Izapidezko egintzen aurka, zuzenean edo zeharka gaiaren mamia ebazten badute.
- 43d) Izapidezko egintzen aurka, defentsa-gabezia sortarazten badute.

**44 GORAKO ERREKURTSOAREN EBAZPENAK**

- 44a) Administrazio-bideari amaiera jartzen dio, eta salbuespenezko berrikuspen-errekurtsoa jartzeko aukera baztertzen du.
- 44b) Ez du bide administratiboa amaitzen.
- 44c) Bide judizialera jotzeko aukera ematen du, salbuespenezko berrikuspen-errekurtsoa erabiltzeko aukera mantenduz.
- 44d) Ez bata eta ez besteak.

**45 BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA**

- 45a) Gorako errekurtsoa bezala, hilabeteko epean jarri behar da.
- 45b) Gorako errekurtsoa ez bezala, hilabeteko epean jarri behar da.
- 45c) Bi hilabeteko epean jarri behar da.
- 45d) Ez dauka jartzeko epe-mugarik.

**46 ERREKURTSOGILEAK ERREKURTSOA GAIZKI KALIFIKATZEN BADU**

- 46a) Errekurtsoa ez da ametituko.
- 46b) Errekurtsoa ezin izango da geroago zuzendu.
- 46c) Ez du errekurtsoarean izapidetzea galaraziko, betiere bere benetako izaera ondorioztatu badaiteke.
- 46d) Errekurtsoa ezetsi egingo da.

**47 NOLAKOA IZAN BEHAR DU KALTEAK HERRI-ADMINISTRATIOEN ONDAREZKO ERANTZUKIZUNA SORTZEKO?**

- 47a) Benetan gertatutakoa, materiala eta pertsona edo pertsona-talde bati mugatua.
- 47b) Benetan gertatutakoa, diru aldetik zenbatgarria eta pertsona edo pertsona-talde bati mugatua.
- 47c) Ondarezkoa eta pertsona edo pertsona-talde bati mugatua.
- 47d) Garrantzitsua, materiala eta pertsona edo pertsona-talde bati mugatua.

**48 ZEIN DIRA HERRI ADMINISTRATIOEN ZERBITZUKO LANGILE?**

- 48a) Bai karrerako nahiz bitarteko funtzionarioak, bai behin-behineko langileak eta lan-legepeko langileak.
- 48b) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, lan-legepeko langileak eta behin-behineko langileak, baldin eta Funtzio Publikoaren Euskal Legearen manuek berariaz aipatzen badituzte.
- 48c) Karrerako funtzionarioak, bitarteko funtzionarioak, transferitutako funtzionarioak eta behin-behineko funtzionarioak.
- 48d) Langile funtzionarioak, lan-legepeko langileak eta administrazioaren kontratatuak.

**49 ZEIN TALDETAN SAILKATZEN DIRA EUSKADIKO HERRI ADMINISTRATIOEN ZERBITZUKO LAN-ITUNPEKO LANGILEAK?**

- 49a) Bitartekoak eta behin-behinekoak.
- 49b) Finkoak eta lanaldi partzialekoak.
- 49c) Finkoak eta aldi baterakoak.
- 49d) Finkoak eta bitartekoak.

**50 KARRERAKO FUNTZIONARIOEI BURUZ:**

- 50a) Nahi dutenean har dezakete jabetza.
- 50b) Karrerako funtzionario izaera galdu egiten dute zerbitzuan behin baino gehiagotan eragozpenak eraginez gero.
- 50c) Aldi baterako lanpostuak betetzen dituzte.
- 50d) Karrerako funtzionario izaera galtzen dute, baldin postuari idatziz uko egin eta administrazioak ukazioa onartzen badu.

**51 BITARTEKO FUNTZIONARIOEK ZEIN KASUTAN GALTZEN DUTE POSTUA?**

- 51a) Hutsik zegoen postua arauz betetzen denean, ordeztutako funtzionarioa bere plazara itzultzen denean eta zeregin gehiegi edo zeregin-pilaketa izatearen ondorioz sortutako beharriaz aurre egiteko izendapenean ezarri zen epea bukatzen denean.
- 51b) Plaza hutsa arauz betetzen denean eta ordeztutako funtzionarioa bere plazara itzultzen denean.
- 51c) Izendapena eragin zuen arrazoia amaitzen denean, eta karrerako funtzionario izaera galtzea dakarten arrazoiak gertatzen direnean.
- 51d) Izendapena eragin zuen arrazoia amaitzen denean.

**52 ZEREN ESKUBIDEA DAUKATE FUNTZIONARIOEK?**

- 52a) Familiako baten heriotzagatik lizentzia hartzeko, hirugarren mailako ahaidetasuneko senideak arte.
- 52b) Norbere kontuko lizentziak hartzeko, zerbitzuko beharrak kontuan hartu gabe.
- 52c) Norbere kontuko lizentziak hartzeko, baina inoiz ez bi hilabete baino gehiago hiru urtetik behin.
- 52d) Ordu batez lanetik alde egiteko, umea zaintzeko (10 hilabetetik beherako umeren bat izanez gero).

**53 FUNTZIONARIOEI BURUZ:**

- 53a) Bateriaezintasunen erregimena zorrotz betetzeko obligaziotik salbuetsita egon daitezke, betiere, Funtzio Publikoaren Legeak salbuesteko aurreikusitako kasuren batean egonez gero.
- 53b) Aukera daukate bigarren lanpostua betetzeko sektore pribatuan, beren konbenioan hala jasota badago.
- 53c) Sektore pribatuan bigarren lanpostu bat bete dezakete, aurretiaz eta berariaz bateragarritasun-baimena lortu badute.
- 53d) Bateragarritasun-baimena besterik ez dute behar sektore publikoan bigarren lanpostua betetzeko.

**54 HAUETATIK ZEIN DA OINARRIZKO LANSARIA?**

- 54a) Produktibitatearen osagarria.
- 54b) Nekagarritasunaren osagarria.
- 54c) Destinoaren osagarria.
- 54d) Hirurtekoak.

**55 LANSARIAK:**

- 55a) Egun bakoitzeko likidatuko dira, zerbitzu aktiboan lehenengoz hastean edo berriz hastean, lansarira jasotzeko eskubiderik gabeko lizentziak amaitu ondoren.
- 55b) Hilabete oso bakoitzeko sorrarazi eta ordainduko dira, zerbitzu aktiboari utzi zaion hilean.
- 55c) Egun bakoitzeko likidatuko dira, pentsio publikoko araubideen mende dauden funtzionarioen erretiroen kasuan.
- 55d) Edozein kasutan ere, eguneko likidatuko dira.

**56 ZER DIRA HIRURTEKOAK?**

- 56a) Zerbitzuan benetan emandako hiru urteko tarte bakoitzarengatik jasotzen den diru-kopurua; kopurua berdina da lanbide-sailkapeneko azpitalde edo talde bakoitzeko.
- 56b) Zerbitzuan etenik gabe emandako hiru urteko tarte bakoitzarengatik jasotzen den diru-kopurua; kopurua berdina da lanpostu-maila bakoitzeko.
- 56c) Zerbitzuan emandako hiru urteko tarte bakoitzarengatik jasotzen den diru-kopurua; kopurua berdina da lanbide-sailkapeneko azpitalde edo talde bakoitzean.
- 56d) Zerbitzuan etenik gabe emandako hiru urteko tarte bakoitzarengatik jasotzen den diru-kopurua; kopurua berdina da lanbide-sailkapeneko azpitalde edo talde bakoitzean.

**57 HUTSEGITE OSO LARRIA DA:**

- 57a) Gaixotasun-bajen segimendu eta kontrolari buruzko arauak ez betetzea.
- 57b) Laneko ordutegiari behin eta berriz huts egitea.
- 57c) Laneko ordutan arrazoirik gabe lanpostuan ez egotea.
- 57d) Sekretu profesionala urratzea.

**58 ZERBITZUA UZTEA ZER DA?**

- 58a) Hutsegite oso larria.
- 58b) Hutsegite larria.
- 58c) Hutsegite arina.
- 58d) Hutsegite oso arina.

**59 NOIZ PRESKRIBATZEN DIRA HUTSEGITE ARINEN ONDORIOZ EZARRITAKO DIZIPLINA-ZIGORRAK?**

- 59a) Bederatzi hilabete igaro ondoren.
- 59b) Hiru hilabete igaro ondoren.
- 59c) Sei hilabete igaro ondoren.
- 59d) Hilabete igaro ondoren.

**60 EUSKADIKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANPOSTUEN ZERRENDATAN ZER ZEHAZTU BEHAR IZATEN DA?**

- 60a) Hizkuntza-eskakizuna eta, baldin badauka, derrigortasun-eguna.
- 60b) Lanpostu bakoitzak daukan euskara-derrigortasunaren indizea.
- 60c) Derrigor aplikatu beharreko irizpideak.
- 60d) Hizkuntza maila ezarrita daukaten lanpostu guztien derrigortasun-eguna.

**61 HAUTA-PROBETAN, INONGO HIZKUNTZ ESKAKIZUNIK BETETZEA EZ BADA ESKATZEN:**

- 61a) Gaztelania ezagutzea baino ez da baloratuko.
- 61b) Euskara ezagutzea meritutzat joko da.
- 61c) Euskarak izango du bere balioa lanpostuaren hornikuntza erabakitzeko.
- 61d) Probak gainditzen dituenak ezingo du lehian aritu derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna daukan plazaren bat betetzeko.

**62 EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAN LAN EGITEN DUTEN IRAKASLEEN EUSKARA MAILA EBALUATZEKO PROBEN EDUKIA ETA FORMA NORK ERABAKITZEN DU?**

- 62a) Hezkuntzako administrazioak.
- 62b) IVAPek.
- 62c) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak.
- 62d) Dena delako zentroko zuzendaritzak.

**63 IRAKASKUNTZAKO LANPOSTUETAN APLIKATZEN DIREN HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK:**

- 63a) Bi dira.
- 63b) Lau dira.
- 63c) Ez dira beti berdinak, aldatu egiten baitira zentroak irakaskuntza publikokoak edo pribatukoak izan.
- 63d) Gehiago edo gutxiago dira, derrigortasunaren baldintzen arabera.

**64 IRAKASKUNTZAREN SEKTOREKO 1. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK AUKERA EMATEN DU IRAKASGAIA EUSKARAZ ERAKUSTEKO:**

- 64a) Bai, A ereduan bada.
- 64b) Bai, B ereduan ez bada.
- 64c) Ez du aukerarik ematen euskaraz irakasteko.
- 64d) Inola ere ez irakaskuntza ertainean.

**65 EGA TITULUA ZEREN PAREKO DA HEZKUNTZAKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNETAN?**

- 65a) Hirugarren hizkuntza-eskakizunarena.
- 65b) Laugarren hizkuntza-eskakizunera.
- 65c) Bigarren hizkuntza-eskakizunarena.
- 65d) Lehenengo hizkuntza-eskakizunarena.

**66 DERRIGORTASUN-EGUNA ZEIN LANPOSTURI JARRI BEHAR ZAION JAKITEKO, ZER HARTZEN DA KONTUAN?**

- 66a) Derrigorrez bete beharreko indizea.
- 66b) Hizkuntza-eskakizuna.
- 66c) Langileak kokatuta dauden lurralde historikoaren errealitate soziolingüistikoa.
- 66d) Lanpostua kokatuta dagoen zerbitzuaren edo atalaren izaera eta tipologia.

**67 HAUTAKETA EGITEN DENEAN, EUSKARA JAKITEAREN PONDERAZIOA ZENBATEKOA IZANGO DA 1. ETA 2. ESKAKIZUNETAN?**

- 67a) % 3-% 6
- 67b) % 4-% 8
- 67c) % 5-% 10
- 67d) % 5-% 12

**68 IZAERA PERTSONALEKO DATUEN BABESA. ADIERAZI ZEIN DEN ZUZENA**

- 68a) Izaera pertsonaleko datuak tratatzeko, tratamendua ukitzen duen pertsonaren baimen garbia behar da, legeak besterik ezartzen duenean izan ezik.
- 68b) Izaera pertsonaleko datuak Herri Administrazioei dagozkien eginkizunak egikaritzeko eta haien eskumenen esparruan jasotzen direnean ez da baimenik behar.
- 68c) Baimena erreboka daiteke, arrazoi justifikatua dagoenean eta atzeraeraginik aitortzen ez zaionean.
- 68d) a), b) eta c) erantzunak dira zuzenak.

**69 ONDOKO ERAKUNDEEN ARTEAN, ZEINEK JAKINARAZI BEHAR DIZKIO DATU PERTSONALEN FITXATEGIAK DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOARI?**

- 69a) Euskal Autonomia Erkidego barruko toki-administrazioek
- 69b) Eusko Legebiltzarrak
- 69c) Lan Harremanen Kontseiluak
- 69d) Aurreko erantzun guztiak dira zuzenak.

**70 GEZURRA DA:**

- 70a) Datu pertsonalak bildu eta tratatu ahal izango dira baldin eta egokiak, aukerakoak eta neurrizkoak badira biltzekoan zuten helbururako.
- 70b) Datu pertsonalak biltzekoan zuten helbururako ez den beste zerbaiterako ere erabil daitezke.
- 70c) Datu pertsonalak zehatzak eta eguneratutakoak izango dira, eta dena delako pertsonaren gaur egungo benetako egoeraren berri eman beharko dute.
- 70d) Datu pertsonalak biltegitratzerakoan, horietara iristeko eskubidea bermatu beharko da, salbu eta datu horiek legez ezabatuak izan diren

**71 DATU PERTSONALAK ESKATU AURRETIK, INFORMAZIO HAU EMAN BEHAR DA EZINBESTEAN:**

- 71a) Nori eskatzen zaion informazioa.
- 71b) Nahi izanda eman diren datuak ezin ezingo direla ezabatu.
- 71c) Tratamendu-erantzulea nor den eta zein helbide duen.
- 71d) Zigorrek egon daitezkeela adierazitako datuak ez badira berehalakoan eguneratzen.

**72 BEREZIKI BABESTUTAKO DATUAK DIRA HONAKO HAUEK:**

- 72a) Adina, generoa eta helbidea eta halako datu pertsonalak.
- 72b) Sindikatuko afiliazioei buruzko datuak, elkarte sindikaletan daudenetaz aparteak.
- 72c) Jokabide pertsonal edo familiarrei buruzko datuak.
- 72d) Administrazio Publikoetan lan egiteko administrazioaren eskumen-esparruan bildutako datu pertsonalak, administrazioerekiko harremanari buruzkoak.

**73 AGIRITEGIEN ANTOLAKETA. DOKUMENTU-SERIEA ERATZEA ZER DA?**

- 73a) Sailkatze-lana da.
- 73b) Ordenatze-lana da.
- 73c) Edozein agiri artxibatzean egin beharreko lana da.
- 73d) Agiriak antolatzearekin zerikusirik ez daukan lana da.

**74 ONDORENGO BEREIZGARRI HAUETATIK, ZEIN EZ DAGOKIO KUDEAKETA-AGIRITEGIARI?**

- 74a) Izapidetzen ari diren espedienteei buruzko agiriak ditu.
- 74b) Erabakiak hartzeko balio duten agiriak ditu.
- 74c) Barruan dituen agirien balio sekundarioa da.
- 74d) Gehientsuenetan, oso zaharrak ez diren agiriak gordetzen ditu.



**75 AGIRIEN ERREGISTROA. ADIERAZI ZEIN DEN ERANTZUN ZUZENA.**

- 75a) Idazkunak idazterakoan, agiriak noiz sartu edo irten diren hurrenkera errespetatu behar da.
- 75b) Idazkunean agiriak ze ordutan aurkeztu diren adierazi behar da.
- 75c) Idazki eta komunikazioak jasotzeko eratzen diren erregistroak euskarri informatikoan jarri beharko dira.
- 75d) Aurreko baieztapen guztiak zuzenak dira.

**76 EAEKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ORGANO BATEKO ERREGISTROAN TUTERAKO (NAFARROAKO) ALKATEARENTZAKO AGIRI BAT AURKEZTEN BADA,**

- 76a) Agiria hartu eta Tuterako Udaletxera igorriko da, erregistratu gabe.
- 76b) Tuterako Udaletxearen eta EAEn artean halako agiriak hartzeko hitzarmena badago bakarrik onartuko da agiria.
- 76c) Agiria ez da onartuko, inola ere.
- 76d) Agiria organo horretan bertan geratuko da erregistratuta, baina Tuterako Udaletxera igorriko da.

**77 HAUETATIK, ZEIN DA ERREGISTROEN ZEREGINA?**

- 77a) Dena delako egintza egin dela adierazita geratzea.
- 77b) Agiriak kontserbatzea.
- 77c) Erantzun zuzenak a) eta b) dira.
- 77d) Erantzun guztiak okerrak dira.

**78 ESPEDIENTEAK ARTXIBATZEAZ...:**

- 78a) Espedientea bukatu ondoren artxibatzen dira espedienteak.
- 78b) Espedienteko agiriak erregistratu aurretik artxibatzen dira espedienteak.
- 78c) Agiriak pilatu direla-eta bulegoan leku gutxi geratzen denean artxibatzen dira espedienteak.
- 78d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**79 TELEFONO DEI BATI ERANTZUTEN ARI GARELA NORBAIT GURE MAHAIRA INGURATZEN BADA, ZER DA EGOKIENA?**

- 79a) Telefonoz jarraituko dugu, etorri dena ikusi ez bagenu bezala.
- 79b) Telefona utzi eta etorri berriari egingo diogu kasu.
- 79c) Keinu egingo diogu adierazteko ikusi dugula eta berehala egingo diogula kasu.
- 79d) Telefonokoarekin amaitu arte zain egoteko esango diogu, serio.

**80 JENDEARI ARRETA EMATEN ARI GARELA, HERRITARRAK ESANDAKOA ERREPIKATZEA:**

- 80a) Edukazio-falta da.
- 80b) Lagungarri izan daiteke herritarrak zer nahi duen zehazteko.
- 80c) Lagungarri izan daiteke herritarrak ikus dezan arreta emateko gogoz gaudela.
- 80d) Erantzun zuzenak b) eta c) dira.

**81 DEMAGUN HERRITAR EDADETU BAT ETORRI ZAIGULA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEENTZAKO BEKA ESKURATZEKO BALDINTZEI BURUZ GALDEZKA. BEKA HORRI BURUZKO GALDERAK ERANTZUTEA GURE LANA DENEZ,**

- 81a) Eskatutako informazioa emango diogu, berak ulertzeko moduan.
- 81b) Eskatutako informazioa emango diogu, baldin egiaztatzen badu prozeduran interesduna dela
- 81c) Azalduko diogu informazio hori soil-soilik ikasleei, edo, adin txikiko ikasleen kasuan, aita-amei eta erantzuleei, ematen zaiela.
- 81d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**82 ENPRESAREN KALITATE-POLITIKA JASOTZEN DUEN AGIRIA ZER DA:**

- 82a) Kalitate-eskuliburua.
- 82b) Prozedurak.
- 82c) Erregistroak.
- 82d) Monografia.

**83 UNE-EN-ISO 9001:2000 ARAUA ZERTAZ ARDURATZEN DA?**

- 83a) Kalitatea kudeatzeko sistemen betekizunez.
- 83b) Oinarriez eta hiztegiak.
- 83c) Jarduna hobetzeko jarraibideez.
- 83d) Ez dago horrelako araurik.

**84 IKASKUNTZA, BERRIKUNTZA ETA HOBEKUNTZA ETENGABEA:**

- 84a) EFQM ereduaren balio inspiratzaile bakarra da.
- 84b) 5S hobetzeko metodologiaren balio inspiratzaile bakarra da.
- 84c) Kalitatearen kudeaketa-eredu bat baino gehiagoren balio inspiratzailea da.
- 84d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**85 EUROPAKO BIKAIN TASUN-EREDUA HONELA BANATZEN DA:**

- 85a) 2 irizpidetan.
- 85b) 8 irizpidetan.
- 85c) 6 irizpidetan.
- 85d) 9 irizpidetan.

**86 ZER TARIFA DAGOKIO GASTEIZTIK AMURRIORA BIDALTZEKO DEN 15 X 20 CM NEURRIKO ETA 15 GRAMOKO PISUKO GUTUN ZERTIFIKATU BATI?**

- 86a) 0,52 euro.
- 86b) 0,32 euro.
- 86c) 2,54 euro.
- 86d) 2,47 euro.

**87 HAUETATIK, ZEIN DA BEREHALAKO IGORPENEN BEREIZGARRIA?**

- 87a) Etxean entregatzen dira, ez beste inon.
- 87b) Eskura entregatzean dira, ez beste inola.
- 87c) Correos-eko bulego baten entregatzen dira, ez beste inon.
- 87d) Europar Batasuneko edozein herrialdetan entregatzen dira.

**88 NOLA BIDALTZEN DIRA TELEGRAMAK?**

- 88a) Correos-eko bulego baten bitartez.
- 88b) Telefonoaren bidez.
- 88c) Correos-en web orriaren bidez.
- 88d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira.

**89 “POSTAL EXPRES” PAKETEEN BEREHALAKO ZERBITZUA:**

- 89a) Entrega 48 orduren barruan egingo dela bermatzen du.
- 89b) Entrega 24 orduren barruan egingo dela bermatzen du.
- 89c) Gehienez ere 15 kiloko pisua daukaten paketeekin erabil daiteke.
- 89d) Erantzun zuzenak b) eta c) dira.

**90 FOTOKOPIAGAILUAK. DEMAGUN HAINBAT ORRIKO TXOSTEN BATEN HAINBAT KOPIA NAHI DITUGULA, BATI BAINO GEHIAGORI EMATEKO.**

- 90a) “Sailkatu gabe” edo horren pareko botoia erabiliko dugu hasierako menuan.
- 90b) “Sailkatuta” edo horren pareko botoia erabiliko dugu hasierako menuan.
- 90c) Zoom-a erabiliko dugu.
- 90d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**91 FOTOKOPIAGAILUAK. ZER EGIN BEHAR DUGU MAKINAN PAPERA GERATZEN BAZAIGU HARRAPATUTA?**

- 91a) Zerbitzu teknikoari deitu al bait lehen.
- 91b) Makina ireki, paperaren ibilbidea ikusi eta papera poliki-poliki kendu, fabrikatzaileak adierazitako moduan.
- 91c) “Return” edo pareko botoiari sakatu, paperaren ibilbidea garbitzeko.
- 91d) Itzali makina eta berriz piztu.

**92 TERMO-KOADERNATZAILEA DARABILGUNEAN:**

- 92a) Espiralak edo “kanutilloak” erabili behar ditugu.
- 92b) Orriak zulatu behar ditugu.
- 92c) Ezin dugu azal-orria jarri.
- 92d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**93 ZER BEHAR DA ESKUZ IDATZITAKO ORRIAK DIGITALIZATZEKO?**

- 93a) Fax-a.
- 93b) Eskanerra.
- 93c) Testu-prozesagailua.
- 93d) Eskuizkribuak ez daitezke digitalizatu.

**94 ZER EGIN BEHAR DA ERAIKINA ZAINTEAZ ARDURATZEN DEN ORGANOARI ESATEKO KRISTAL TXIKI BAT HAUTSI DELA, ETA BESTE BAT JARTZEKO?**

- 94a) Ezin da idatziz ezer egin.
- 94b) Ofizio bat erabiliko dugu, baina, aukeran, badaukagu ahozko komunikazioa edo posta elektronikoa ere erabiltzea.
- 94c) Eskabide bat erabiliko dugu, nahiz eta, aukeran, badaukagun ahozko komunikazioa edo posta elektronikoa ere erabiltzerik.
- 94d) Txosten bat erabiliko dugu, baina, aukeran, badaukagu ahozko komunikazioa edo posta elektronikoa ere erabiltzea.

**95 ADMINISTRAZIOAREN IDATZIETAN, KOMENI DA:**

- 95a) Izenburua erabiltzea.
- 95b) Esaldi luzeak erabiltzea.
- 95c) Agur egiteko formulak erabiltzea.
- 95d) Erantzun zuzenak a) eta c) dira.

**96 ZER ADIERAZI BEHAR DUTE JAKINARAZPENEK? (AUKERA OKERRA MARKATU)**

- 96a) Egintza administrazio-bidetik behin betikoa den ala ez.
- 96b) Errekurtsoak jartzeko zenbateko epea dagoen.
- 96c) Jakinarazitako egintzaren edukiari buruzko aipamen laburra.
- 96d) Zein organoaren aurrean jarri behar den errekurtsua.

**97 FEED-BACK-A**

- 97a) Komunikaziorako oztopo da.
- 97b) Mezua behar bezala jasoko dela ziurtatzeko erabil dezakegu.
- 97c) Mezu-igorleak besteek entzuten diotela jakin dezan erabil daiteke.
- 97d) Erantzun zuzenak b) eta c) dira.

**98 ADMINISTRAZIOAREN DOKUMENTU IDATZIETAN...**

- 98a) komeni da funtzionarioen maila altua agerian utziko duten kultismoak erabiltzea.
- 98b) hobe da lerrokada laburragoak erabiltzea eta esaldiak puntuazio-zeinuen bidez bereiztea.
- 98c) arkaismo eta leloen ordeztu adierazpide berriagoak erabili behar dira.
- 98d) komeni da estilo-zurruntasuna erabiltzea, era askotariko egituren ordeztu.

**99 ZIURTAGIRIAREN HELBURUA HURRENGO HAU DA:**

- 99a) Ebazpen edo erabaki baten berri ematea.
- 99b) Herritarrari izapide bat betearaztea.
- 99c) Espediente bati hasiera ematea
- 99d) Egitate bat dagoela egiaztatzea.

**100 LAN EGITEN DUZUN ZERBITZUKO ENPLEGATU BAT EZ DAGO BULEGOAN. ERABILTZAILE BATEK PREMIAZKO KONTSULTA BAT EGIN NAHI DIO ENPLEGATU HORRI ETA ENPLEGATUAREN TELEFONO PRIBATUAREN ZENBAKIA ESKATU DIZU ZURI. ZER EGINGO DUZU?**

- 100a) Zenbaki pribatua eman.
- 100b) Enplegatuaren laneko zenbakia eman eta enplegatua etorri arte itxaroteko esan.
- 100c) Kontsulta benetan premiazkoa bada, esan zeuk deituko diozula enplegatuari, baina ez eman telefono zenbakia.
- 100d) Zenbakia eman, baina ez duela beste ezertarako erabiliko aginduarazi ondoren.

## **ERRESERBAKO GALDERAK**

**101 ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN ARABERA (39. art.):**

- 101a) Botere publikoek adineko pertsonen babes sozial, ekonomiko eta juridikoa ziurtatzen dituzte.
- 101b) Gurasoek era guztietako laguntzak eskaini behar dizkiete ezkontzakoak diren seme-alabei.
- 101c) Legeak ez du ahalbidetuko aitatasunaren ikerketa.
- 101d) Botere publikoek amen babes osoa ziurtatzen dute.

**102 AUTONOMIA-ESTATUTUAREN ARABERA, ZER ESKATZEN DUTE EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGOEKIN EGIN DITZAKEEN LANKIDETZA-AKORDIOEK?**

- 102a) Eusko Jurlaritzaren baimena.
- 102b) Eusko Legebiltzarraren baimena.
- 102c) Gorte Nagusien baimena.
- 102d) Espainiako Gobernuaren baimena.

**103 ADMINISTRAZIO-PROZEDURAN, KONGRUENTZIA PRINTZIPIOAK:**

- 103a) Exijitzen dio Administrazioari interesdunek planteatu dituzten gai guztiei buruz erabakitzea.
- 103b) Administrazioari uzten dio interesdunek planteatu dituzten gai batzuk bakarrik erabakitzea.
- 103c) Administrazioa ebazpen koherente bat ematera behartzen du.
- 103d) Administrazioa ebazpen labur bat ematera behartzen du.

**104 FORMA AKATSEN BAT EGONDA, EZ DENEAN BIDEZKOA JOTZEN GAIAREN MUINA EBAZTEA, PROZEDURA AKATSA EGIN ZEN UNERA ATZERAERAMATEA AGINDUKO DA**

- 104a) Gezurra, ezin da espedientea akatsa egin zen unera atzeraeraman.
- 104b) Egia, akatsen konbalidazio kasuetan salbu.
- 104c) Egia, izan ere, prozedura atzeraeramatea aginduko da, akatsa egin zen unera.
- 104d) Aurrekoetatik bat ere ez.

**105 NOLA HASTEN DIRA HERRI-ADMINISTRAZIOEN ONDAREZKO ERANTZUKIZUNA AITORTZEKO PROZEDURAK?**

- 105a) Interesdunek eskatuta bakarrik.
- 105b) Administrazioaren kabuz bakarrik.
- 105c) Administrazioaren kabuz edo interesdunak eskatuta.
- 105d) Administrazioaren kabuz, interesdunak eskatuta edo salaketaren ondorioz.

**106 NORTZUK DIRA BITARTEKO FUNTZIONARIO?**

- 106a) Lege-izendapenaren ondorioz eta premiazko arrazoiak direla-eta, aurrekontuan dotaziorik ez daukaten plazak aldi batez betetzen dituztenak edo Funtzio Publikoaren Euskal Legeak aurreikusten dituen egoeratako batean dauden langileak.
- 106b) Premia eta beharra dela-eta behin-behingoaz plantillan hutsik dauden lanpostuak betetzen dituzten langileak, aldi batez huts egiten duten karrerako funtzionarioen lanpostuko lanak betez.
- 106c) Lan Zuzenbideak araututako erlazio profesionalaren bidez, bitarteko zerbitzuak ematen dituzten langileak.
- 106d) Izendapenagatik eta premia dela-eta aldi batez lanean ez dabilzan karrerako funtzionarioen lanpostuetako lanetan ordezkari dabilzanak.

**107 LANTEGIETAN ISKANBILAREN BAT SORTZEA EDO PARTE HARTZEA ZER DA?**

- 107a) Hutsegite arina.
- 107b) Hutsegite oso arina.
- 107c) Hutsegite larria.
- 107d) Hutsegite oso larria.

**108 EGA TITULUA ZEREN PAREKO DA ADMINISTRAZIO OROKORREKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNETAN?**

- 108a) Hirugarren hizkuntza-eskakizunarena.
- 108b) Laugarren hizkuntza-eskakizunera.
- 108c) Bigarren hizkuntza-eskakizunarena.
- 108d) Lehenengo hizkuntza-eskakizunarena.

**109 HAUETATIK, ZEIN DA DOKUMENTU-SERIEEN BEREIZGARRI?**

- 109a) Agiri-multzoak dira.
- 109b) Agiriek formatu, eduki informatibo eta euskarri homogeneousak izan behar dituzte.
- 109c) Erantzun zuzenak a) eta b) dira.
- 109d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

**110 HARTZAILEARENGAN DENA DELAKO JOKABIDEA ERAGIN NAHIAN IBILTzea:**

- 110a) Edozelako informazioaren bereizgarria da.
- 110b) Informazioaren bereizgarria da, komunikazioarena ez bezala.
- 110c) Komunikazioaren bereizgarria da, informazioarena ez bezala.
- 110d) Ez da ez komunikazioaren bereizgarria ez informazioarena ere.



## **BOLSAS DE TRABAJO 2009**

# **AUXILIARES ADMINISTRATIVOS**

**MODELO A**

**18/12/2009**

**10:00**

**1 LA CONSTITUCION ESPAÑOLA:**

- 1a) Garantiza el derecho a la intimidad personal pero no al secreto de las comunicaciones postales.
- 1b) Garantiza el derecho a la intimidad personal pero no a la propia imagen.
- 1c) Regula el estatuto de los trabajadores.
- 1d) Todas son incorrectas.

**2 SEGÚN LA CONSTITUCION ESPAÑOLA:**

- 2a) No se reconoce el derecho a asociaciones secretas.
- 2b) Se reconoce el derecho de reunión pacífica.
- 2c) Las reuniones en lugares públicos serán aprobadas o prohibidas por la autoridad bajo su criterio.
- 2d) a) y b) son correctas.

**3 SEGÚN LA CONSTITUCIÓN ESPAÑOLA:**

- 3a) Se reconoce la libertad de enseñanza.
- 3b) Sólo los profesores intervendrán en el control de los centros sostenidos con fondos públicos.
- 3c) La enseñanza básica es gratuita sólo para los menores de edad.
- 3d) Todas son incorrectas.

**4 SEGÚN LA CONSTITUCIÓN, TODOS TIENEN DERECHO A DISFRUTAR DE UN MEDIO AMBIENTE ADECUADO Y ADEMÁS ...**

- 4a) Los poderes públicos velarán por un medio ambiente saludable.
- 4b) Para quienes violen lo dispuesto en este artículo, se establecerán sanciones administrativas en todo caso.
- 4c) Todos tienen la obligación de conservarlo.
- 4d) Todas son correctas.

**5 SEGÚN LA CONSTITUCIÓN LOS PODERES PÚBLICOS...**

- 5a) Promoverán la participación de la juventud.
- 5b) Realizarán una política de previsión e integración de los disminuidos físicos.
- 5c) Garantizarán la suficiencia económica a los ciudadanos durante la tercera edad.
- 5d) Todas son correctas.

**6 SEGÚN LA CONSTITUCIÓN SOBRE LOS ESTATUTOS DE AUTONOMÍA**

- 6a) El Estado los reconocerá pero no los amparará.
- 6b) Deberán contener: La delimitación del territorio y la denominación actual de la Comunidad.
- 6c) La reforma de los estatutos deberá aprobarse por el presidente o lehendakari.
- 6d) Deberán contener las competencias exclusivas del Estado.

**7 SEGÚN EL ESTATUTO DE AUTONOMÍA DEL PAÍS VASCO, EUSKAL-HERRIA SE CONSTITUYE EN COMUNIDAD AUTÓNOMA COMO EXPRESIÓN DE:**

- 7a) Su historia.
- 7b) Su cultura.
- 7c) Su nacionalidad.
- 7d) Su identidad histórica.

**8 ¿CUÁL DE LAS SIGUIENTES SEÑAS DE IDENTIDAD NO ES DETERMINADA EN EL ESTATUTO DE AUTONOMÍA DEL PAÍS VASCO?**

- 8a) La bandera del País Vasco.
- 8b) La sede de las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma.
- 8c) El euskara como lengua oficial.
- 8d) La denominación de la Comunidad Autónoma.

**9 LA INSTITUCIÓN VASCA SIMILAR AL DEFENSOR DEL PUEBLO SE DENOMINA:**

- 9a) Ararteko.
- 9b) Lehendakari.
- 9c) Comisionado Vasco.
- 9d) Justicia Mayor.

**10 LA CIRCUNSCRIPCIÓN ELECTORAL EN LAS ELECCIONES AL PARLAMENTO VASCO ES:**

- 10a) La cuadrilla.
- 10b) La Comunidad Autónoma.
- 10c) El territorio vasco.
- 10d) El Territorio Histórico.

**11 EL ESTATUTO DE AUTONOMÍA RECONOCE EN EL ARTÍCULO 37 QUE LOS TERRITORIOS HISTÓRICOS TIENEN COMPETENCIAS:**

- 11a) Exclusivas.
- 11b) Compartidas
